

2007KO URRIAREN 10EKO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko urriaren hamarrean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta Xabier Arrasate Aierbe.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Bilkurari hasiera eman eta alkateak adierazten du eguneko gai zerrenda egiterakoan hutsegitez sartu gabe gelditu zirela baina bilkuran tratatzea eskatzen duela ondorengo zertifikazio hauek: Mikelar kaleko urbanizazio proiektuaren osagarriko bigarren eta hirugarren zertifikazioak eta Arizti Haundi futbol zelaiko birmoldaketaren lehenengo zertifikazioa eta aldi berean likidazioa dena.

Denak ontzat ematen dute zertifikazio hauek tratatzea.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko irailaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2007ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 8 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMO (185.286,61,-)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 564 zbk.dun esped.: etxeko laguntza zerbitzua gehitzea, astean 5 egun eta egunean 2 ordutik astean 6 egun eta egunean 3 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2a izango da.

- 343 zbk.dun esped.: etxeko laguntza zerbitzua ematea, astean 5 egunean eta egunean 2 ordutan. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 831 zbk.dun esped.: oinarritzko premietarako hilean 154,00 € ematea, urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 789 zbk.dun esped.: Ikasketetako onartutako dirulaguntza etetea, ikastetxeak hileroko kuota ordaintzetik salbuetsi duelako.
- 564 zbk.dun esped.: etxeko mantenimendu gastuetarako 68,45 € ematea eta aurretiko zorpetze gastuetarako hilean 214,60 € ematea, urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %74a da.

Minusbaliatuen garraioa.-

- 533 zbk.dun esped.: Ordiziako Gureak tailerrera garraioa ordaintzeko hilean 72, 52 € ematea, irailtik abendura.

Gizakia helburu programa.-

- 615 zbk.dun esped.: Gizakia Helburu programaren harrera aldian egitaraua hasi duela eta, garraiorako hilean 51,50 € ematea, irailtik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

IV.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara Batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobenu Batzarrak honako erabakiak hartzen ditu:

Gerriko Ikerlan Beka.-

Goierriko Euskal Eskolari, Gerriko Ikerlan Beka sariaren 2007ko gastuei aurre egiteko, 2. zatia ordainketa egitea, 2.350 € emanez.

Euskarako ikastaroetarako dirulaguntzak.-

2006-2007 ikaturtean euskara eskoletara joan diren herritarrei dirulaguntza ematea, horretarako dauden arauak jarraiki. Guztira 18 lagun dira eta 2.561,26 € emango zaizkie. Langabezian daudenei matrikula kostuaren %60a eta gainontzekoei matrikula kostuaren herena.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirol Batzordetik jasotako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak honako erabakiak hartzen ditu:

- Irailaren 17tik 21era Udalak antolatutako Mugikortasun Astea San Benito Ikastolako D.B.H.4 eta 2. mailako ikasleen partehartzea dela eta, San Benito Ikastolari 600 €ko dirulaguntza ematea.
- Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkartea Sanmieleto eskolara eta helduen esku pelotako txapelketarako eginko dirulaguntza eskariaren aurrean, 270 €ko dirulaguntza ematea.

- Josetxo Imazen oroimenezko VIII. Lasterketa antolaketarako Txindoki Atletismo taldeari 730 €ko dirulaguntza ematea.

- Arizti Haundi Futbol Zelaiko mantenu lanak egiteagatik, eta lan hauek egitearen inguruan izenpetutako hitzarmenaren arabera, 2007ko 2. eta azken ordainketa gisa Lazkao Kirol Elkarteari 3.000 €ko dirulaguntza ematea.

VI.- MIKELAR KALEKO URBANIZAZIO PROIEKTU OSAGARRIAREN 2. ETA 3. ZERTIFIKAZIOA-OAK.-

Mikelargo birrurbanizazio lanen proiektu osagarriaren obra zuzendaritza daraman Injelan, S.L.ko Iñaki Laskurain Gisasola Ingeneriak lanen 2. eta 3. zertifikazioak luzatu ditu. 2. zertifikazioaren zenbatekoa HIRUROGEITA HAMABOST MILA BEDERATZIEHUN ETA HEMERETZI EURO eta HOGEITA HAMAHAZPI ZENTIMO (75.919,37 €) da eta 3. zertifikazioarena berriz EHUN ETA HIRUROGEITA LAU MILA ZORTZIREHUN ETA HAMABOST EURO eta HIRUROGEITA LAU ZENTIMO (164.815,64 €). Lanak burutzen ari den enpresa Koldo Kerejeta, S.L. enpresa da.

Udal Arkitekta teknikoak bere oniritzia eman die zertifikazio hauei.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, guztien adostasunarekin Mikelargo birrurbanizazio lanen proiektu osagarriaren 2. eta 3. zertifikazio hauek onartzea erabakitzen du.

VII.- ARIZTI HAUNDI FUTBOL ZELAIKO BIRMOLDAKETA LANEN LEHEN ZERTIFIKAZIOA-LIKIDAZIOA.-

Arizti Haundi Futbol Zelaiko Birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daraman Injelan, S.L.ko Iñaki Laskurain Gisasola Ingeneriak lanen lehen eta aldi berean likidaziokoa den zertifikazioa luzatu du. Zertifikazio honen zenbatekoa HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BI MILA HIRUREHUN ETA HAMAHAZPI EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMOtakoa (362.317,68 €) da. Lanak burutzen ari den enpresa Construcciones y Obras Pagozelay, S.L. eta Excavaciones y Transportes ORSA, S.L.k osatutako Aldibaterako Enpresa Elkartea enpresa da.

Udal Arkitekta teknikoak bere oniritzia eman die zertifikazio honi.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, guztien adostasunarekin Arizti Haundi Futbol Zelaiko Birmoldaketa lanen zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.